

DONOSTIAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENAREN AURRERAKINA

AVANCE DE LA REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN
URBANA DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN



Zeharkako gaiak: Euskera

Diagnostikoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Zeharkako gaiak: Euskara

Euskararen ezagutza: hizkuntza-gaitasuna

Diagnostiko teknikoa


HIRIBURUEKIN ALDERATUA

- Euskaldunen hizkuntza-komunitatearen testuinguruan, **Donostiak garrantzi handia du**. Kopuru erlatiboetan, hiribururik euskaldunena da eta lurralde euskaldunenean dago, Gipuzkoan.
- Donostiako biztanleen % 46k euskaraz daki, eta ia % 20k euskara ulertzen du.


LURRALDEAREKIN ALDERATUA

- Donostia Gipuzkoako hiriburua da**, euskaldunen proportzio handiena daukan lurraldea.
- Donostia euskararen babesleku**. Euskara Donostiako berezko hizkuntza da eta, gaztelaniarekin batera, bertako hizkuntza ofiziala.


Hiriburu arteko euskarazko hizkuntza-gaitasunaren alderaketa. 2016
Comparación de la competencia lingüística en euskera entre las capitales. 2016



Lurralde historikoen arteko euskarazko hizkuntza-gaitasunaren alderaketa. 2016
Comparación de la competencia lingüística en euskera entre territorios históricos. 2016



Lurraldeen arteko euskarazko hizkuntza-gaitasunaren alderaketa. 2016
Comparación de la competencia lingüística en euskera entre territorios. 2016



Zeharkako gaiak: Euskara


Euskararen ezagutza: hizkuntza-gaitasuna

Diagnostiko teknikoa

BILAKAERA DONOSTIAN

- Donostian, Euskararen ezagutzak nabarmenki egin du goruntz azken 40 urteetan. Eustaten azken datuak kontuan hartuta, 1986tik 2016ra euskaldunak asko ugaritu dira, % 26tik % 46ra.
- Ia-euskaldunen kopurua berdintsu mantendu da aztertutako epealdian (% 19), hala ere, azken 5 urteetan beherakada nabaria izan du.
- Donostiako biztanleria erdaldunari dagokionez, nabarmenki gutxitu da aztertutako epealdian. 1986. urtean biztanleriaren % 54a izatetik % 34a izatera igaro dira 2016an.
- Egoerari buelta eman zaio. Aztertutako epealdian, biztanleria euskalduna gutxiena izatetik, nagusiena izatera igaro da.

Euskarazko hizkuntza-gaitasunaren bilakaera Donostian.
Evolución de la competencia lingüística en euskera en Donostia / San Sebastián.



Zeharkako gaiak: Euskara

Euskararen ezagutza: hizkuntza-gaitasuna

Diagnostiko tekniko

EUSKARAREN EZAGUTZA EZ DA HOMOGENOA DONOSTIAN


- **Adinari dagokionez:**


- * Gaitasun linguistiko handiena gazteen arteko adin-tartean dago, % 85 eta % 90 bitartean.
- * Beste adin-tarteetan emaitzak apalagoak dira.
- * 64 urtetik gorako adin-tartean ditugu ezagutza datu baxuenak.

- **Biztanleria euskaldunaren banaketari dagokionez:**

- * 2016an ezagutza altuena duten auzoen artean daude Zubieta (% 79,18), Añorga (% 69,91), Igeldo (% 67,58), Ibaeta (% 55,2), Antigua (%53,37) edo Aiete (% 50,55).
- * Ezagutza apalagoa duten auzoak, hala nola, Altza (%36,19), Mirakruz-Bidebieta(%38,68,)edo Intxaurren (%43,83) dira.
- * Auzoetako egoera soziolinguistikoan dauden ezberdintasunak nabariak dira.

Euskarazko hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Donostia (2016).
Competencia lingüística en euskera por edades. Donostia / San Sebastián (2016).





Zeharkako gaiak: Euskara


Euskararen ezagutza: hizkuntzaren eskuratzea


Diagnostiko teknikoa

HIZKUNTZAREN ESKURATZEA

- 1986tik 2016ra bitartean, udalerriko etxeetan euskara ama-hizkuntza gisa irakatsi den ehunekoa ia ez du aldaketarik izan, eta % 20 ingurukoa izan da.
- Etxeetan euskara ama-hizkuntza gisa gehiago irakasten den auzoetan, hizkuntza-gaitasuna ere handiagoa da. Auzo horiek Zubieta, Igeldo eta Añorga dira, non 2016an euskararen irakaskuntza ama-hizkuntza gisa etxeetan % 57,72, % 46,98 eta % 37,74 zen, hurrenez hurren.
- Jarraian Antigua-Ondarrreta (% 27,58), Erdialdea (% 25,99), Ibaeta (% 23,16), Miramon-Zorroaga (% 22,62), Ategorrieta-Ulía (% 20,50), Gros (% 20,45), Aiete (% 19,30), Egia (% 19,21), Amaraberri (% 18,60), Martutene (% 18,45), Loiola (% 14,96), Intxaurrondo (% 14,79), Mirakruz-Bidebieta (% 13,48) eta Altza (% 9,74).

Hizkuntza-transmisioaren bilakaera Donostian. Ama-hizkuntza.
Evolución de la transmisión del idioma en Donostia / San Sebastián. Lengua materna.






Zeharkako gaiak: Euskara


Hizkuntzaren irakaskuntza

Diagnostiko teknikoa

- Argi dago euskararen ezagutza nabarmen indartu eta orokortu dela Donostiako haur eta gazteen artean, eta, aurrerapen hori, neurri handi batean, hezkuntza sistemari esker izan da. Azken berrogei urteetan D ereduak goranzko bilakaera izan du.
- 2020/2021 ikasturtean, D eredu (euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzen duena) aukeratu zuten: **Haur Hezkuntzako ikasleen % 85,4k, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 77,2k, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen % 65,6k, Batxilergoko ikasleen % 61,0k eta Lanbide Heziketako ikasleen % 31,8k.**
- Unibertsitate-mailan, 2022-23 ikasturtean, **ikasleen %53,5ek graduko ikasketak euskarazko taldeetan** egingo dituzte.
- Euskaldunen kopurua areagotzea ekarri duen beste faktore bat helduen euskalduntzea da. Une honetan, **Donostian, 11 euskaltegi daude**, eta bertan urtero, batez beste 4.000 ikasle ari dira euskara ikasten.
- Salbuespen txiki batzuk izan ezik, **euskararen ezagutza baxua den auzoetan (Altza, Mirakruz-Bidebieta, Loiola, Martutene, Intxaurrenondoko), eta altua den auzoetan (Añorga, Igeldo eta Zubieta) ez dago euskaltegirik.** Euskaltegi gehienak erdialdeko auzoetan biltzen dira.

2020-2021 kurtsoko matrikulazio-datuak. Donostia.
Datos de matriculación del curso 2020-2021. Donostia / San Sebastian.





Matrikulazioak A ereduan

Hezkuntza-zentroak

Haur Hezkuntza

Lehen Hezkuntza

Bigarren Hezkuntza

Batzilergoa

Lanbide Heziketa

Matrikulazio-kopuru totalaren
araberako tamaina

Matriculaciones en el modelo A

Centros educativos

Educación Infantil

Educación Primaria

Educación Secundaria

Bachillerato


Formación Profesional

Tamaño según el número
total de matriculaciones

Eranskina - Euskara
Anexo - Euskara

Hirigunea
Área urbana

Eskala A3 1/35.000
Escala



**Matrikulazioak
B ereduan**

Hezkuntza-zentroak

Haur Hezkuntza

Lehen Hezkuntza

Bigarren Hezkuntza

Batzilergoa

Lanbide Heziketa

Matrikulazio-kopuru totalaren
araberako tamaina

**Matriculaciones
en el modelo B**

Centros educativos

Educación Infantil

Educación Primaria

Educación Secundaria

Bachillerato


Formación Profesional

Tamaño según el número
total de matriculaciones

Eranskina - Euskara
Anexo - Euskara

Hirigunea
Área urbana

Eskala A3 1/35.000
Escala



**Matrikulazioak
D ereduan**

Hezkuntza-zentroak

Haur Hezkuntza

Lehen Hezkuntza

Bigarren Hezkuntza

Batzilergoa

Lanbide Heziketa

Matrikulazio-kopuru totalaren
araberako tamaina

**Matriculaciones
en el modelo D**

Centros educativos

Educación Infantil

Educación Primaria

Educación Secundaria

Bachillerato


Formación Profesional

Tamaño según el número
total de matriculaciones

Eranskina - Euskara
Anexo - Euskara

Hirigunea
Área urbana

Eskala A3 1/35.000
Escala



Hezkuntza-zentroak

Euskaltegiak

Ikastetxeak

Centros educativos

Euskaltegis

Colegios

Eranskina - Euskara

Anexo - Euskara

Hirigunea

Área urbana

Eskala A3 1/35.000

Escala


Zeharkako gaiak: Euskara

Euskararen erabilera: etxean


Diagnostiko teknikoa


- 1991tik 2016ra, **euskararen erabilera % 8,69tik % 14,12ra igo da** udalerriko etxeetan.
- Aztertutako epealdian, **Euskararen eta gaztelaniaren erabilera**, udalerriko etxeetan **% 12 ingurukoa** izan da.
- 1991tik 2016ra, **gaztelanian erabilera % 78,40tik % 69,90ra jeitsi da** udalerriko etxeetan.
- **Euskararen erabilera etxeetan, ohiko hizkuntza gisa, handia den auzoetan, hizkuntza-gaitasuna ere handiagoa da.** Hala, Zubieta, Igeldo eta Añorga dira etxeetan euskara ama-hizkuntza gisa gehien erabiltzen den auzoak , % 39,93, % 32,31 eta % 25,33, hurrenez hurren.
- Etxeetan hitz egiten den hizkuntzen ehunekoaren arabera mapan adieraziz gero, **mendebaldetik ekialdera gradiente argia azaltzen da.**

Euskararen erabilaren bilakaera. Donostiako etxeetan hitz egiten den hizkuntza.
Evolución del uso del euskera. Lengua hablada en los hogares de Donostia / San Sebastián.



Euskararen hizkuntza-transmisioaren eta etxe-erabilaren arteko alderaketa (2016).
Comparación entre la transmisión lingüística y el uso en el hogar del Euskera (2016).





Euskararen erabilera: etxeo hizkuntza	Uso del Euskara: lengua hablada en casa
<% 10	<10 %
% 10 - % 15	10 % - 15 %
% 15 - % 20	15 % - 20 %
% 20 - % 25	20 % - 25 %
% 25 - % 30	25 % - 30 %
>% 30	>30 %

Eranskina - Euskara
Anexo - Euskara

Hirigunea
Área urbana

Eskala A3 1/35.000
Escala


Zeharkako gaiak: Euskara

Euskararen erabilera: kale-erabilera


Diagnostiko tekniko


- 1989tik 2021ra, Donostiako kaleetan euskararen erabilerak gora egin du, % 10,30tik %15,30ra. Hala ere, 2006tik 2021era hiru puntu egin du behera (% 18,20tik % 15,30era, alegia).
- Adinari dagokionez, **haurrak aritzen dira gehien euskaraz** (%29,6).
- Generoari dagokionez, **emakumeek eta gizonek berdintsu egiten dute euskaraz** (% 15 batez beste).
- **Igeldo eta Añorga** auzoetan dago euskararen presentziarik handiena kaleetan: % 74,9 eta % 42,2, hurrenez hurren.

Euskararen erabilera bilakaera ohiko harremanetan. Donostia.
Evolución del uso del euskera en relaciones habituales. Donostia / San Sebastián.



Euskararen ezagutza, hizkuntza-transmisioa eta kale-erabileraren arteko alderaketa (2016).
Comparación entre el conocimiento, transmisión y el uso en la calle del Euskera (2016).





Zeharkako gaiak: Euskara

Euskararen erabilera: jarduera ekonomikoetan eta administrazioarekiko harremanean


Diagnostiko teknikoa

JARDUERA EKONOMIKOETAN

- Donostian 141 establezimenduk dute «Bai Euskarari» ziurtagiria. «Bai Euskarari» ziurtagiria duten establezimenduen ratioa 0,77koa da mila biztanleko.
- 54 erakunde pribatuk dute «bikain» ziurtagiria Donostian. Bikain ziurtagiria duten establezimenduen ratioa 0,30ekoa da milako.
- Udalerriaren mendebaldean biltzen dira ziurtagiria duten establezimendu gehienak.
- 2021 eta 2022 artean, Donostiako merkataritza, ostalaritza eta gainerako jarduerak dituzten 4283 establezimendutako **kanpoko hizkuntza paisaiaren neurketa** egin zen. Ondokoa da euskararen presentzia Donostiako establezimenduetan: errotulu nagusiei dagokienez, euskara (bakarrik edo beste hizkuntzekin) establezimenduen % 31,1ean erabiltzen da; toldoetan berriz, % 40,6an; binilo finkoetan % 36,2an; bestelako euskarri solteetan %33,5ean; aldi baterako karteletan % 35,7an; produktu/zerbitzuen eskaintzako euskarrietan % 20,8an; erakusleihoko produktuak eskaintzeko euskarrietan % 16,3an; eta denda kanpoko erakusmahaietako euskarrietan % 19,7an.

ADMINISTRATIOAREKIKO HARREMANEAN

- 16 erakundek dute Donostian “Bikain” ziurtagiria.
- Udaleko eta erakunde autonomoetako 2021eko datuen arabera, **1433 langileetatik % 81,77k egiaztatu du bere lanpostuko hizkuntza-eskakizuna** (1996. urtean, % 22,47 ziren bakarrik gaitasun hori zutenak).
- 2017an egin zen neurketaren arabera, **herritarren % 27,57k erabiltzen zuten euskara udal-administrazioarekin zituzten harremanetan.**



Euskara-ziurtagiriak	Certificados de Euskera
BAI Euskarari ziurtagiria	● Certificado "BAI Euskarari"
BIKAIN ziurtagiria	● Certificado BIKAIN

Eranskina - Euskara
Anexo - Euskera

Hirigunea
Área urbana

Eskala A3 1/35.000
Escala